



EBAZPENA, 2021eko abenduaren 10ekoa, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordearena, 2021-2022 ikasturtean ikertzaile doktoreen doktoretza-ondoko hobekuntza-programa laguntza berriak eman eta dirulaguntza horiek berritzeko prozesua arautu eta deitzen duen Hezkuntza sailburuaren 2021eko uztailaren 6ko aginduaren bidez deitutako dirulaguntzen berritzeak ebazten dituen (Ikerketa Espezifikoa).

Ikerketa Espezifikoa berritzeko eskaeren ebaluazioa eta Selektio Batzordeak helarazitako proposamena kontuan hartuta eta aipatutako Aginduan xedatutakoa betez,

EBATZI DUT:

Lehena.- I. eranskinean agertzen den pertsona bakarrari ikertzaile doktoreen doktoretza-ondoko hobekuntza-programarako laguntzaren berritzea ematea eta dagokion ezarpen zentroa adieraztea, era berean kontratuak eta bidaiak finantzatzeko zentroak jasoko duen diru kopurua ere ezartzen da 2021-2022 ikasturterako.

Bigarrena.- Dirulaguntza horien zenbatekoa, iraupena eta jasotzeko gainontzeko baldintzak 2021eko uztailaren 6ko aginduak xedatutakoaren arabera erabakitzea.

AZKEN XEDAPEN BAKARRA

Ebazpen honek ez du amaitzen administrazio-bidea; beraz, bere aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute interesadunek, Hezkuntza sailburuari zuzenduta. Horretarako epea hilabetekoa da, ebazpen hau www.euskadi.eus egoitza elektronikoaren iragarki-taulan argitaratu eta biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko abenduaren 10a.



HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

ADOLFO MORAIS EZQUERRO
Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordea